



HEZIKETA BEREZIKO LANGILEAK - 2023ko FORMAKUNTZA FUNTSA

Parte hartzeko jarraibideak

1.- Bakarrik 2023. urteko gastuak kontutan hartuko dira. 2023an ordaintzen edo fakturatzen diren gastuak joko dira halakotzat.

- Ikastaroa ematen duen entitateak egindako egiaztagir/ordainagiria, honako datu hauek dituela: ikaslearen izena, ikastaroaren izena, iraupena eta balioa, beti ere urte naturalari dagokiolarik, halaber ikastaro horiei dagozkien urteko banketxeko abonu-agiriak. Agiri guztiak jatorrizkoak izan behar dute, baina kopiak ere onartuko dira jatorrizko zigilua baldin badute.

2.- Lanpostuaren eginkizunekin lotutako prestakuntza:

Kategoria bakoitzean betetzen den lanpostuaren eginkizunekin lotutako prestakuntzaren kasuan, behar bezala justifikatutako gastuen batura osoa jasoko da.

Eskatzaile bakoitzak guztira jaso dezakeen laguntzaren gehieneko zenbatekoa 500€koa izango da.

Gastuen baturak funtsaren zenbatekoa gainditzen badu, modu proportzionalan banatuko da.

Nolanahi ere, prestakuntza zentro ofizial eta homologatu batek eman behar du.

Ez da laguntzarik emango Masterrak eta Postgraduak egiteko.

3.- Hezkuntza munduarekin zerikusia duen prestakuntza:

Aurreko puntuko banaketa eta gero funtsan dirua banatzeko geratzen bada, gainerako prestakuntzan, betiere Hezkuntza munduarekin zerikusia badu, behar bezala justifikatutako gastuen batura osoa jasoko da.

Eskatzaile bakoitzak guztira jaso dezakeen laguntzaren gehieneko zenbatekoa 500€koa izango da.

Gastuen baturak funtsaren zenbatekoa gainditzen badu, modu proportzionalan banatuko da.

Nolanahi ere, prestakuntza zentro ofizial eta homologatu batek eman behar du.

Ez da laguntzarik emango Masterrak eta Postgraduak egiteko.

4. artikulua.- Eskabideak aurkezteko epea eta lekua.

1.- Eskaerak **Hezigunea** ingurunean jarriko den berriazko aplikazio baten bidez egingo dira.

2.- **Eskaera bat aurkeztuko da eskatzen den laguntza-modalitate bakoitzeko.**

3.- Eskaerak **2024ko martxoaren 5etik apirilaren 12ra bitartean** (bi egunak barne) aurkeztu ahal izango dira.

5. artikulua.- Eskabideak eta dokumentazioa.

1.- Eskabide bakoitzarekin batera laguntza-modalitate bakoitzean eskatzen den dokumentazio espezifikoa aurkeztuko da, PDF formatuan, jatorrizko kopiekin bat etorritik. Horretarako, eskatzaile bakoitzak Heziguneko aplikazioan bertan agertuko den erantzukizunpeko adierazpen bat berretsiko du.

2.- Espedienteak ebazteko behar diren datuak egiaztatu eta argitzeko, Administrazioak eskatu ahal izango die datu horiei buruzko dokumentazioa edo eskatzaileen administrazio edo lan egoerari buruzko dokumentazioa beste sail, erakunde, administrazio edo entitateei.



6. artikulua.- Kudeatzeko prozedura.

- 1.- Hezkuntza Saileko web-orriaren bidez argitaratuko da zirkular hau.
- 2.- Eskabide bakoitza bide telematikoz egingo da, Hezigunea ingurunean langile horien eskura jarritako aplikazioaren bidez.
- 3.- Eskabideak Mahai parekideak ebatziko ditu.
- 4.- Eskabideak Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpen bidez ebatziko dira.
- 5.- Nominaren bitartez ordainduko da.
- 6.- Errekurtso aldian, interesdunaren aldeko ebazpenik egonez gero, hurrengo urteko Gizarte-Funtsaren bidez ordainduko da, hala badagokio.

7. artikulua. Bateragarritasunak

Laguntza hauek bateragarriak dira nomina-aurrerakinekin, aurrerakin itzulgarriekin edo nominan hileroko atxikipena dakarren administrazio publikoaren beste edozein prestaziorekin.

8. artikulua. Faltsutasuna eskabideetan

Datuak ezkatutzeak, aurkeztutako dokumentuetan datu faltsuak jartzeak edo eskatutako dokumentazioa ez aurkezteak hauxe ekarriko dute: eskatutako laguntza ukatzea, edo emandako laguntza galtzea. Azken kasu horretan, behar ez bezala jasotako zenbatekoak itzuli beharko ditu interesdunak, eta Zigor Kodearen 390. eta hurrengo artikuluetan aurreikusitako erantzukizun penalak eta sor litezkeen erantzukizun zibil eta administratiboak eskatu ahal izango zaizkio.

Legitimazioa:

- Tratamendua beharrezkoa da, interesduna alderdi duen kontratu bat betearazteko.
- Tratamendua beharrezkoa da, interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.
- 2/1993 Legea, otsailaren 19koa, Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Unibertsitateko kanpoko Irakaskuntzarako Irakasleen Kidegoei buruzkoa.
- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duena.
- 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duena.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saileko lan-legepeko irakasle eta hezitzaileentzako hitzarmen kolektiboa (2004ko ekainaren 17ko EHAA, 114. zk.).

Hartzaileak:

- Estatuko Administrazioiko beste organo batzuk
- Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk

Eskubideak: Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere.

Informazio osagarria: Gure web-orrian kontsulta dezakezu Datuen Babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua: www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/048100-capa2-eu.shtml

**Araudia:**

Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra
(www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa_dpd/eu_def/adjuntos/RGPD-2016_0679_eu.pdf).

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.
(www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf)

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoaren 4an.

LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**BLANCA GUERRERO OCEJO**